



**AGIFESEN  
KAZETARITZA ETA  
BURU OSASUNA  
SARIAK 2018**

**PREMIOS  
PERIODISMO  
Y SALUD MENTAL 2018  
DE AGIFES**

## PARTE-HARTZAILEAK

- **Gipuzkoan hedapena duten komunikabideetan** (telebistak, irratiak, egunkariak, aldizkariak eta informazio webguneak) **buru osasunarekin loturiko kazetaritza-lanak argitaratu** dituzten egileek parte hartu ahal izango dute.
- **Egileek aurkeztu beharko dituzte lanak**, eta komunikabideek beraiek ere egin ahal izango dute kazetarien baimenarekin.
- Lanak **euskeraz edo/eta gaztelaniaz** aurkez daitezke.
- Partaide bakoitzak **nahi adina lan** aurkeztu ahal izango ditu, oinarri hauetan adierazitako edozein hizkuntza eta kategoriatan.

## KATEGORIAK

Lehiaketak **hiru kategoria** ditu:

- **Idatzizko hedabideak** (prentsa eta komunikabide digitalak)
- **Telebista**
- **Irratia**

## BALORAZIO IRIZPIDEAK

- **Gizarte sentsibilizazioa** helburu duten lanak bereziki baloratuko ditugu, **buru osun arazoaren inguruan dagoen estigma gainditzen laguntzen dutenak**; buru gaixotasuna duten pertsonen **gizarteratzea** sustatzen dutenak; patologia horien inguruko aurreiritziak baztertzen dituztenak; eta pertsona horien **gaitasunak eta errekupeziarako aukerak** azpimarratzen dituztenak.
- **Terminologia egokia eta errespetuzkoa** erabiltzea baloratuko dugu (Fedeafesek landutako [Komunikabideentzako estilo gidaliburua](#) eskuragarri duzue).
- Lanek **argazkiak edo ikus-entzunezko baliabideak** baldin badituzte, horien edukia eta transmititzen duten ikuspegia ere kontuan hartuko ditugu.

## SARIAK

- **Hiru sari** banatuko ditugu: kategoria bakoitzeko lan onenak **400 euro** jasoko ditu.
- **Hizkuntza aldetik ez dugu bereizketarik egingo**. Euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztutako lanek sari berberak izango dituzte aukeran.

**#berdingabeazara**

Ezagutu kanpaina [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean

## LANEN AURKEZPENA

- Aurkeztutako lanak **2018an argitaratuak edo igorriak** izan beharko dute.
- Lanak **2018ko azaroaren 25era arte** aurkeztu ahal izango dira.
- Honela aurkeztu beharko dira:
  - **Idatzizko lanak (prentsa eta hedabide digitalak):** egunkariko edo aldizkariko orrialde osoaren PDFa. Argitaratze data eta egilea ikusi beharko dira PDFan. Argitalpen digitala izanez gero, URLa bidali beharko dute hautagaiek, online irakurri ahal izateko.
  - **Irratia:** ohiko audio programen bidez entzun ahal izateko formatuan.
  - **Bideoak:** Youtuben erreprodizitu daitekeen formaturen batean.
- Materiala [info@agifes.org](mailto:info@agifes.org) helbidera bidali behar da, egilearen/egileen datu pertsonalekin batera (atxikitako dokumentu batean jasota):
  - Izen-abizenak
  - NAN
  - Emaila
  - Telefonoa
  - Twitterreko profila (aukeran)
  - Lana argitaratu edo igorri duen komunikabidearen izena
  - Argitaratze edo igorpen data

## LAN IRABAZLEEN AUKERAKETA

- Agifesen **sentsibilizazio batzordeak** aukeratuko ditu lan irabazleak, azal dutako irizpideak kontuan izanik.
- Batzordearen **erabakia apelaezina** izango da.
- **Edozein sari hutsik gera daiteke**, epaimahaiak erabakitzen badu lan bakar batek ere ez dituela ezarritako irizpideak betetzen.
- Saritutako lanak [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean argitaratuko dira. Gainera, irabazleekin harremanetan jarriko gara emailaz edo telefonoz.

## AURKEZTUTAKO LANEN ARGITARATZEA

- Lan irabazleak, eta baita artikulu eta ikus-entzunezko erreportaje aipagarrienak ere, **Agifesen webgunean** argitaratuko ditugu ([www.agifes.org](http://www.agifes.org)) eta **elkarteko sare sozialen eta bestelako hedabideen** (Newslettera eta aldizkaria) bidez zabalduko ditugu.
- Edozein kasutan, komunikabidea eta **egilea/egileak aipatuko ditugu**.

## ONESPENA

- Parte hartzearekin batera, aurrez adierazitako baldintzak onartzen ditu partaideak.

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean

## IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

Izaera pertsonaleko datuen babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazten dugu parte-hartzailearen datu pertsonalak AGIFESen jabetzako fitxategi batean gordeko direla, Kazetaritza eta Buru Osasuna Sarietako partaideen datuak kudeatzeko helburuarekin. Partaideei espresuki ziurtatzen diegu euren datuak ez zaizkiela inola ere hirugarrenei emango, eta datu horiek inori laga aurretik jabeen oniritzia eskatuko genukeela aldez aurretik. Legearen arabera, norbere datuak ikusteko, zuzentzeko edota baliogabetzeko aukera dute parte-hartzaileek, eta horretarako gurekin jar daitezke harremanetan [info@agifes.org](mailto:info@agifes.org) emailera edo 'Morlans Pasealekua 3, behea, 20009 Donostia' helbidera idatziz (nortasun agiri ofizialaren kopia bidali behar da idatziarekin batera).

#berdingabeazara

Ezagutu kanpaina [www.agifes.org](http://www.agifes.org) webgunean